ANTZEKO HIRUKIAK

DEF. : Binaka, neurri bereko angeluak dituzten bi hirukiak, **antzeko hirukiak** direla erraten da

PROP. : Bi hirukien bi angeluk, binaka, neurri berekoak baldin badira orduan antzeko hirukiak dira

PROP. : Bi hirukien aldeak binaka proportzionalak baldin badira orduan antzeko hirukiak dira

PROP. : Bi hiruki antzekoak baldin badira orduan beraien angeluak, binaka, neurri berekoak dira

8. ariketa : CBD eta BFE antzeko hirukiak direla frogatu.



Aterabidea : Bi hirukien aldeak binaka proportzionalak direla froga dezagun.

- alde handienak : $\frac{CD}{BE} = \frac{8,5}{6,8} = 1,25$
- alde ttipienak : $\frac{BD}{FE} = \frac{4}{3,2} = 1,25$
- azken aldeak : $\frac{BC}{BF} = \frac{7,5}{6} = 1,25$

Beraz $\frac{BC}{BF} = \frac{CD}{BE} = \frac{BD}{FE}$ orduan BCD eta BEF antzeko hirukiak dira.

9. ariketa : ABCD lauki zuzena da. ABE eta BCE hiruki zuzenak dira E puntuan eta $\widehat{DAC} = 60°$. ABE, BCE eta ACD hirukiak antzekoak direla frogatu.



Aterabidea : Hiru hirukien bi angelu, hirunaka, neurri berekoak direla frogatuko dugu :

- lehenik, $\widehat{ADC} = \widehat{BEC} = \widehat{AEB} = 90°$ (hiruki zuzenak)
- bigarrenik, hiruki zuzen batean, bi angelu zorrotzak osagarriak direlako, idatz dezakegu :

$\widehat{DCA} = 90° - \widehat{DAC} = 90° - 60° = 30°$ (DAC hirukian),
$\widehat{BCE} = \widehat{BCD} - \widehat{DCA} = 90° - 30° = 60°$ eta
$\widehat{EBC} = 90° - 60° = 30°$ (EBC hirukian)
$\widehat{EAB} = \widehat{BAD} - \widehat{EAD} = 90° - 60° = 30°$
Beraz $\widehat{DCA} = \widehat{EBC} = \widehat{EAB} = 30°$
Orduan ABE, BCE eta ACD hirukiak ber neurriko bi angelu dituztenez antzekoak dira.
Oharra : ariketa honetan erabil dezakegu hirukien angeluen batura ere bai…